

**DEIALDI PUBLIKOA, SASKIBALOIKO KIROL ESKOLA, ESKUBALOIKO KIROL ESKOLA
eta PILOTAKO KIROL ESKOLA ANTOLATZEKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO
(2015eko URRIAREN 1etik ABENDUAREN 31 ARTE eta
2016ko URTARRILAREN 1etik MAIATZAREN 31 arte)**

Barañaingo Udalak, Kirolerako arloaren bitartez, hemengo deialdi hau ezarri du zeinak xede baitu laguntza ematea kirol jarduerak antolatzen dituzten haiei, segidako oinarri hauen arabera:

1.- XEDEA

Diru-laguntza honen xedea da honako kirol programa haiek antolatu eta gauzatzea:

- A: Saskibaloiko kirol eskola: 2015eko urriaren 1etik abenduaren 31ra eta 2016ko urtarrilaren 1etik maiatzaren 31ra.
- B: Eskubaloiko kirol eskola: 2015eko urriaren 1etik abenduaren 31ra eta 2016ko urtarrilaren 1etik maiatzaren 31ra.
- C: Pilotako kirol eskola: 2015eko urriaren 1etik abenduaren 31ra eta 2016ko urtarrilaren 1etik maiatzaren 31ra.

Hiru kirol programa horiekin lortu nahi diren helburuak dira:

- Ikaslearen hezkuntza integralaren prozesua ahalbidetzea kirol irakaskuntzaren bidez; baina kirol irakaskuntza horiek ulertuta betiere lankidetzarako bitarteko gisa prozesu horretan, eta ez, bere-berez, helburu gisa.

- Barañaingo neska-mutiko guztiei bermatzea, eskuragarri dauden baliabideen arabera, haiek aukeratzen duten kirola ikasteko eta kirol horretan aritzeko aukera, ingurune osasuntsu eta seguruan garatu ditzaten beren oinarrizko trebetasunak, gaitasun fisikoa, sexua edo egoera sozialagatiko bereizkeriarik gabe.

* Diru-laguntza honetarako aukeratzen den egitasmoak ezin izango du jaso finantzaketarik Barañaingo Udalaren beste arlo eta programetatik.

2.- DIRU-LAGUNTZAREN ZENBATEKOA

Saskibaloiko kirol eskola, Eskubaloiko kirol eskola eta Pilotako kirol eskola antolatzeko diru-laguntzetarako ezarri den gehieneko zenbatekoa da 16.000 € lehen aldirako (2015eko urriaren 1etik abenduaren 31ra), eta 32 45201 48900 kontusailari egotziko zaio, Barañaingo Udalak 2015erako duen gastuen aurrekontuaren baitan.

Saskibaloiko kirol eskola, Eskubaloiko kirol eskola eta Pilotako kirol eskola antolatzeko diru-laguntzetarako ezarri den gehieneko zenbatekoa da 24.000 € bigarren aldirako (2016ko urtarrilaren 1etik maiatzaren 31ra), baldin eta kreditua erabilgarri badago 2016. urteari dagokion aurrekontuan.

Behin betiko diru-laguntza bi aldietan banatuko da eskoletako bakoitzean; lehen aldirako % 40a, eta bigarrenerako % 60a.

Zenbateko hori ordainduko da soilik, parte-hartzaileek izena ematen dutenean eta jarduerak irauten duen bitartean, Barañainen erroldatuta badaude edo Lagunak Udal Zerbitzuko abonatuak badira haiek (ez, ordea, kirolari abonatuak). Halere, eta aurrezkoaz gain, diru-laguntza emango da 2013/2014 ikasturtean jarduera horietan parte hartu zuten eta 2015/2016 ikasturtean parte hartzen jarraitzen dutenengatik. Behin-behineko diru-laguntza irailean finkatuko da, aurreko ikasturtean izandako parte-hartzaile kopuruaren arabera. Behin betiko diru-laguntza finkatuko da 2015eko abenduaren 31n hiru eskola horietako diru-laguntza jasotzeko eskubidea duten parte-hartzaile kopuru osoaren arabera. Hala, hasierako diru-laguntza baino txikiagoa bada hori, hein horretan murriztuko da behin betiko diru-laguntza. Era berean, diru-laguntzarako eskubidea duten parte-hartzaileen kopurua aurreikusitakoa baino handiagoa bada, proportzionalki igoko da

diru-laguntza; baina betiere, deialdian finkatu diren gehieneko zenbatekoak erabilia muga gisa, beraz, kasu horretan, legokiokeen hainbanaketa egingo litzateke.

Barañainen erroldatuta dauden parte-hartzaileengatik eta Lagunak Udal Zerbitzura abonatuta daudenengatik dagokion diru-laguntza ordaintzeko ezinbestez bete beharko da honako baldintza hau: erroldatu edo abonatu izaerari eustea kirol ikasturte guztian (urriaren 1etik maiatzaren 31ra).

Aurreko baldintza hori ez bada betetzen, azken ordainketa bideratzerakoan –behin jarduera bukatuta- murriztu egingo da emandako diru-laguntza, Barañaingo Udalean erroldatu izaera edo Lagunak Udal Zerbitzuko abonatu izaera galdu duten parte-hartzaileengatik.

3.- BETEBEHARRAK

Diru-laguntza eska dezakete, deialdi honetan, irabazi asmorik ez duten erakunde eta elkarteek, Barañainen helbidea dutenek eta Udalaren interesekoak diren zerbitzuak eman edo jarduerak egiten dituztenek zeintzuk, eskaerak aurkezteko epea bukatzen denean, jarraitzen baitute segidako baldintzak betetzen (eta baldintza horiei eutsi beharko diete diru-laguntza ematen den ekitaldi ekonomiko guztian):

- Beraien estatutuetan ezarritakoarekin bat garatzea jarduerak, kirolaren esparruan.
- Pertsona juridikoa izatea, legalki eratua eta behar bezala izena emanda egotea Nafarroako Gobernuko Elkartearen Erregistroan eta Barañaingo Elkartearen Udal-erregistroan.
- Betebehar fiskalak eta Gizarte-segurantzakoak egunean edukitzea, eta hori guztia egiaztatzea dagozkion sinestamenduekin (Foru Ogasuna eta Gizarte Segurantza), edo adierazpen arduratsuaren bitartez egiaztatuta, atxikita dagoen II. Eranskina hartuta eredu gisa, ez daudenean derrigortuta betebehar horiei dagozkien egiaztagiria aurkeztera. Barañaingo Udalarekiko betebehar fiskalei dagokionez ofizios egiaztatuko da hori guztia, behar diren zuzemen bidez agerrarazita. Era berean, ofizios egiaztatuko da ez dutela zenbatekorik ordaintzeke Udalaren Diruzaintzan.
- Aurkeztuta edukitzea aurreko urteetan jasotako diru-laguntzei dagozkien ordainagiri guztiak.
- Barañaingo Udalarekin ez edukitzea sinatuta elkarlanerako hitzarmenik, zerbitzu kontrataziorik edo beste era bateko kontratu edo konpromisorik egitasmoarentzat zeinetarako eskatu baita finantzazioa. Era berean, diru-laguntzarik ez jasotzea Udalaren beste arloetatik jarduera bererako.

4.- ESKABIDEAK AURKEZTEA

Eskabideak aurkezteko epea 15 egun baliodunekoa izanen da, deialdi honen iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita.

Barañaingo Herritarrak Hartzeko Bulegoan aurkeztu behar dira eskabideak, Barañaingo Udaletxean –Kirol arloari bideratuta-, astelehenetik ostiralera, 8:30etik 14:00etara.

Deialdi honen garapena xede, 3 kirol-programetan zatitu da deialdia eta aukera ematen du eskabidea bakarrenez aurkezteko edo 3rak elkarrekin batera, betiere bata bestearengandik ezberdinduta adierazirik.

Derrigorrean aurkeztu behar da eskaera I. Eranskina hartuta eredu, eta atxikita dauden III. eta IV. Eranskinak eredu hartuta inprimakiak. Dena den, egoki deritzozuen bestelako edozein agiri erants dezakezue, hurrengo atalean agertzen diren balorazio irizpideak aplikatze aldera.

Agiriak jatorrizkoak edo konpultsatutako fotokopiak izanen dira. Eskatzaileei 10 eguneko epea emanen zaie, gehienez ere, jakinarazpena jaso eta biharamunetik aitzina, aurkeztu gabeko agiriak aurkezteko edo egin diren akatsak zuzentzeko. Hala egiten ez bada, epe hori igaro ondoren eskaerari uko egin zaiola ulertuko da.

5.- BALORAZIOA

Deialdiaren xedea den diru-laguntzak jasotzeko eskaerak baloratzeko irizpideak honako hauek izanen dira:

- a) Programa: 60 punturekin baloratuko da, eta kontuan hartu beharreko irizpideak dira:
- Programa teknikoaren garapena bere atal guztietan, kontuan izanda nola egokitzen den herrira aipatu programa. (35 puntu)
 - Giza-baliabideak eta baliabide materialak. (10 puntu)
 - Programaren zabalkunderako eta komunikaziorako plana. (5 puntu)
 - Herritarren parte-hartze aktiboa programa horietan. (10 puntu)
- b) Entitate eskatzailea: 30 punturekin baloratuko da, eta kontuan hartu beharreko irizpideak dira:
- Elkartearen, entitatearen edo erakundearen bilakaera (antzinatasuna, nabarmendutako jarduera, inplikazioa, parte-hartzea). (15 puntu)
 - Elkarrekin, entitateak edo erakundeak duen kide kopurua, eta proposaturiko jardueran horiek beteko dituzten funtzioak. (15 puntu)
- c) Aurrekontua: 10 punturekin baloratuko da, eta kontuan hartu beharreko irizpideak dira:
- Aurkeztutako programarekin bat etortzea aurrekontua. (5 puntu)
 - Egitasmoaren kofinantzatze maila: erabilizaitileen ekarpenak, beste finantzazio iturri batzuk (diru-laguntzak, babesleak...). (5 puntu)

Kirol arloko zerbitzu teknikoek aurkeztu diren eskaeren gaineko txostena egingen dute, atal honetan jasotako irizpideekin bat. Aipatu arloak emakidarako proposamena aurkeztuko dio organo eskudunari, Udalaren kontu-hartzailetzan behin gastua fiskalizatuta, onartua izan dadin. Hori guztia, ondoren Hezkuntzarako eta Kirolerako Informazio Batzordera xede horretarako ematen den informazioa alde batera utzi gabe.

6.- EMAKIDA ARAUTZEKO OINARRIAK

Legeak ezarritakoari jarraiki emango da diru-laguntza, eta honako oinarri orokorrei begirunea gordez:

- Izaera itzulezina, borondatezkoa eta aldi baterakoa izango du.
- Lehentasunezko irizpidea finkatzen du deialdi honen babesean diru-laguntzak emateko baloraziorako erabiliko den baremo zehatzak; eta, hala, puntu gehien lortzen duen egitasmoari emanen zaio diru-laguntza, kirol-eskoletako bakoitzean eta aurreko ataleko irizpideak kontuan hartuta.

7.- EMAKIDA

Diru-laguntza eman eta gero, onartutzat joko da interesdunak horren berri hartu eta 10 eguneko epean espresuki uko egiten ez badio. Eskatzaileen beharra izatea gerta daiteke, aurkeztutako eskaeren gaineko behar adina argibide eman ditzaten.

Emandako zenbatekoa bi alditan ordainduko da, eta horietako bakoitzean 2 epe finkatu dira:

- Lehen aldia:

2015eko urriaren 1etik abenduaren 31ra bitarteko epealdia.

. Emandako diru-laguntzari dagokion % 70a bideratuko da lehenengo ordainketan, 2. oinarrian ezarritako irizpideei jarraiki.

. Gainontzeko % 30a bigarren ordainketarekin bideratuko da, memoria eta emandako zenbatekoari dagokion gastuen zerrenda (dagozkion ordainagiriekin) aurkeztu eta gero, eta behin betiko diru-laguntzaren zenbatekoa baieztatuta, abenduaren 31n, guztira, dauden parte-hartzaileen datuekin.

- Bigarren aldia:

2016ko urtarrilaren 1etik maiatzaren 31ra bitarteko epealdia, baina ordainketa bideratuko da soilik 2016ko ekitaldi horretako aurrekontuko partida egonez gero.

. Emandako diru-laguntzari dagokion % 70a bideratuko da lehenengo ordainketan, abenduaren 31n dauden parte-hartzaileen arabera. Ordainketa hau egingo da behin lehen aldiari dagokion gastua % 100ean justifikatu eta gero.

. Gainontzeko % 30a bigarren ordainketarekin bideratuko da, memoria eta emandako zenbatekoari dagokion gastuen zerrenda (dagozkion ordainagiriekin) aurkeztu eta gero.

8.- BETEBEHARRAK

Oinarri hauen arabera emandako diru-laguntzen onuradunek justifikatu beharko dute eman zen xederako erabili dela diru-laguntza, segidan agertzen diren agiriak aurkeztuta:

- a) Burututako jardueraren memoria xehatua.
- b) Entitatearen lehendakariak edo eskatzaile partikularrak sinaturiko instantzia, Udalaren Alkateari bideratuta, non eskatuko baita diru-laguntzaren ordainketa egitea, zehaztuta kontu korrontearen zenbakia zeinetara egin behar baita diru-transferentzia.
- c) Onuradunaren zinpeko adierazpena zeinetan egiaztatuko baita aurkeztutako ordainagiriak diruz lagundutako jardueretarako erabili direla.
- d) Jarduerak sorturiko gastuen zerrenda eta inprimatutako agiriak.
- e) Guztira emandako diru-laguntzaren zenbatekoaren kopuru baliokideari dagozkion fakturak, zeintzuk ezinbestez bete behar baitituzte segidako baldintzak:
 - Jatorrizkoak izatea edo konpultsatutako fotokopiak.
 - Igorlearen NAN edo IFZ, izena eta izen soziala edukitzea.
 - Fakturaren zenbakia, eta jaulkitze-data zeinak bat etorri behar baitu jarduera garatu den aldiarekin.
- f) Diru-sarreraren zerrenda, horietako bakoitzaren jatorria zehaztuta..

Oinarri hauek arautzen ez duten orotan, alor honetan indarra duen araudia aplikatuko da.

Era berean, onuradunek derrigorrean:

- Jakitera eman behar dute jarduera, zeinak diru-laguntza jaso baitu, egin bitartean izandako edozein gertaeraren berri, gertatzen den unean bertan.
- Onartu egin behar dituzte eskatzaile guztiak, eta ezin izango da inor baztertu eskatzaile horien behar bereziengatik edo beste edozein kasuistika aintzat harturik.

- Jardueraren zabalkuntzan –derrigorrean egin behar dena- aipatu behar dute Barañaingo Udalaren laguntza jaso dutela; hartara, Udalaren logotipoak jarri beharko dira. Logotipo horiek Udaletxean eskatu behar dira.
- Ez dute onartuko jardueran kirol-eskoletako kuota ordaindu ez duen inor, nahiz eta Lagunak Udal Zerbitzuko kirol-kuota ordainduta eduki.

Herritarrak Hartzeko Bulegoan, Udaletxean, aurkeztu behar dira lehen zerrendatutako frogagiriak; lehen epealdiari dagokiona urtarrilaren 8a baino lehen, eta, ekainaren 10a baino lehen bigarren epealdikoa.

OSO GARRANTZITSUA: Jarduera irabazizkoa bilakatzen bada, udalaren diru-laguntza itzuli beharko da; lortutako irabaziaren araberakoa izenen da bueltatu beharrekoa.

Deialdi honetako baldintzaren bat beteko ez balitz edota memoria aipatutako epeetan ez aurkeztu, diru-laguntza bertan behera utzi eta emandako zenbatekoa itzularaztea erabaki lezake organo eskudunak, 10. oinarrian aurreikusitako zuzemenean arabera.

9.- BALDINTZA TEKNIKOAK

Diru-laguntzaren onuradunek bere gain hartu behar dute segidakoaren ardura:

A- SASKIBALOIKO KIROL ESKOLA.

Udalaren saskibaloiko eskolaren kudeaketa 2015eko urriaren 1etik abenduaren 31ra bitarte eta 2016ko urtarrilaren 1etik maiatzaren 31ra bitarte.

B- ESKUBALOIKO KIROL ESKOLA.

Udalaren eskubaloiko eskolaren kudeaketa 2015eko urriaren 1etik abenduaren 31ra bitarte eta 2016ko urtarrilaren 1etik maiatzaren 31ra bitarte.

C- PILOTAKO KIROL ESKOLA.

Pilotako kirol eskolaren kudeaketa 2015eko urriaren 1etik abenduaren 31ra bitarte eta 2016ko urtarrilaren 1etik maiatzaren 31ra bitarte.

Baldintza tekniko horiek dira eskola bakoitzaren kudeaketak barne hartzen dituen printzipioak, zereginak eta funtzioak, V. ERANSKINEAN zehaztuta agertzen direnak. Halere, Udalaren kirol teknikariaren bidez emango zaie konponbidea sor daitezkeen galderei edo berezitasunei.

10.- BALIZKO EZ-BETETZEAK ETA ONDORIOAK

Jasotako zenbatekoa osorik edo haren zati bat itzuli beharko da, diru-laguntza ordaindu zen unetik sortutako berandutze-interesekin batera, honako balizko egoera hauetan:

- a) Diru-laguntza ematea xede duen helburua, jarduera, egitasmoa ez bete izana edo hura oinarritzen duen jokabidea ez izatea, bere osotasunean edo zati batean.
- b) Diru-laguntza eskuratu izana hura jasotzeko bete beharreko baldintzak bildu gabe, interesdunari egotz dakioken arrazoiengatik.
- c) Jasotako dirua zertan erabili den egiaztatzeko obligazioa ez bete izana.
- d) Diru-laguntzen aldiberekotasuna, haien artean bateragarriak izan ezean.
- e) Diru-laguntza emateko kontuan hartu diren egoerak aldatu edo ez bete izana.

f) Deialdi honetan adierazitako baieztatze jardunen menpe egotearen gaineko obligazioari oztopoak jartzea edo haiei uko egitea.

a) Arauetan edo oinarri espezifikoeetan araututako beste balizko egoerak.

Diru-laguntza itzultzeari buruzko ebazpenaren erabakia organo emaileak hartuko du, aplikatu behar diren arau orokorren arabera bideratuta espedientearen aldez aurretik.

Zuzenbide publikodun diru-sarreratzat hartuko dira itzuli beharreko diru-kopuruak, eta, horiek kobratzeko, diru-bilketa gaietan indarrean dauden arauak ezarritakoari jarraituko zaio.

11.- ERABILIKO DIREN ARAUAK

Honako Deialdi hau bertan jasota dauden baldintzekin kudeatuko da, eta, oinarri hauetan aurrez ikusi ez den orotan, aginduko du segidako araudiak: Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legea; Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legea; Barañaingo Udalaren diru-laguntza emateak arautzen dituen Ordenantza; Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legea; eta, arau osagarri gisa, Aurrekontuen Lege Orokorra, eta diru-laguntzei buruzko Estatuko Araudia.

12.- HELEGITEAK

Oinarri hauen eta horiek betearazteko egintzen aurka ondoko errekurtsio hauetakoren bat paratzen ahalko da:

1.- Jakinarazi eta hurrengo hilabetea amaitu aurretik, eta nahiz gero, Birjarpeneko errekurtsioa, erabakia hartu duen organoaren aurrean (30/1992 Legea, azaroaren 25ekoa, 4/1999 Legeak, urtarrilaren 13koak, aldatu zuena); birjarpenekoa aurkeztuz gero, ezin izango da ez gorako errekurtsioa ez administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jarri, birjarpenekoa ebatzi edo ustez ezetsi arte. Birjarpeneko ebazpenaren aurka ezin izango da aurkeztu berriro beste birjarpeneko errekurtsorik.

2.- Jakinarazi eta hilabete bat igaro aurretik, eta nahiz gero, Gorako errekurtsioa Nafarroako Auzitegi Administrazioaren aurrean (6/1990 Foru Legea, uztailearen 2koa). Gorakoa aurkeztuz gero, ezin izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik jarri gorakoa espresuki ebatzi edo ustez ezetsi arte.

3.- Jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita, hurrengo bi hilabeteak amaitu aurretik, Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aipatu jurisdikzioaren organo eskudunaren aurrean (29/1998 Legea, uztailearen 13koa).

I. Eranskina ESKAERA

SASKIBALOIKO KIROL ESKOLA ANTOLATZEKO DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIA – 2015eko urriaren 1etik abenduaren 31 arte eta 2016ko urtarrilaren 1etik maiatzaren 31 arte

JARDUERAREN ARDURADUNA DEN ELKARTEA/ENTITATEA/ERAKUNDEA:

Legezko izena osorik

Helbide soziala	PK	Herria	Herrialdea
Tel.	Faxa	e-posta	
IFZ (erantsi haren fotokopia)			

Bankuko datuak

Banku-entitatea		Sukurtsala	
Kalea			Zk.
PK	Herria	Herrialdea	
Banku-kontuaren zk.			

ORDEZKARIA:

Izen-abizenak..... NAN zk.,

Ardura:

Helbidea:

Tel.: Faxa: e-posta:

ESKATZEN DU:

Eskaera hau kontuan hartzea, eta, xede horretarako, adierazten du:

- Deialdi honetan eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituela.
- Dosier honetan azaltzen diren informazioak egiazkoak direla.

..... (n), 201... (e)koren (a).

Sinadura

I. Eranskina ESKAERA

ESKUBALOIKO KIROL ESKOLA ANTOLATZEKO DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIA – 2015eko urriaren 1etik abenduaren 31 arte eta 2016ko urtarrilaren 1etik maiatzaren 31 arte

JARDUERAREN ARDURADUNA DEN ELKARTEA/ENTITATEA/ERAKUNDEA:

Legezko izena osorik

Helbide soziala	PK	Herria	Herrialdea
Tel.	Faxa	e-posta	
IFZ (erantsi haren fotokopia)			

Bankuko datuak

Banku-entitatea		Sukurtsala	
Kalea			Zk.
PK	Herria	Herrialdea	
Banku-kontuaren zk.			

ORDEZKARIA:

Izen-abizenak..... NAN zk.,

Ardura:

Helbidea:

Tel.: Faxa: e-posta:

ESKATZEN DU:

Eskaera hau kontuan hartzea, eta, xede horretarako, adierazten du:

- Deialdi honetan eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituela.
- Dosier honetan azaltzen diren informazioak egiazkoak direla.

..... (n), 201... (e)koren (a).

Sinadura

I. Eranskina ESKAERA

PILOTAKO KIROL ESKOLA ANTOLATZEKO DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIA – 2015eko urriaren 1etik abenduaren 31 arte eta 2016ko urtarrilaren 1etik maiatzaren 31 arte

JARDUERAREN ARDURADUNA DEN ELKARTEA/ENTITATEA/ERAKUNDEA:			
<u>Legezko izena osorik</u>			
Helbide soziala	PK	Herria	Herrialdea
Tel.	Faxa	e-posta	
IFZ (erantsi haren fotokopia)			
<u>Bankuko datuak</u>			
Banku-entitatea		Sukurtsala	
Kalea			Zk.
PK	Herria	Herrialdea	
Banku-kontuaren zk.			

ORDEZKARIA:

Izen-abizenak..... NAN zk.,

Ardura:

Helbidea:

Tel.:

Faxa:

e-posta:

ESKATZEN DU:

Eskaera hau kontuan hartzea, eta, xede horretarako, adierazten du:

- Deialdi honetan eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituela.
- Dosier honetan azaltzen diren informazioak egiazkoak direla.

..... (n), 201... (e)koren (a).

Sinadura

II. Eranskina ADIERAZPEN ARDURATSUA

JARDUERAREN ARDURADUNA DEN ELKARTEA/ENTITATEA/ERAKUNDEA:

Legezko izen osoa

Helbide soziala

Tel.

IFK

PK

Faxa

Herria

e-posta

Herrialdea

ORDEZKARIA:

Izen-abizenak..... NAN zk.,

Ardura:

Helbidea:

Tel.:

Faxa:

e-posta:

ADIERAZTEN DU:

Ordezkatzen dudan entitatea ez dagoela behartuta Foru Ogasunaren eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrei dagozkien aitorten edo agiriak aurkeztera.

..... (n), 201... (e)koren (a).

Sinadura

III. Eranskina/DATU OROKORRAK (Aurkibidea, lagungarri gisa)

Jardueraren izena: SASKIBALOI ESKOLAREN KUDEAKETA
2015eko urriaren 1etik abenduaren 31 arte eta 2016ko urtarrilaren 1etik maiatzaren 31 arte.

1.- JARDUERAREN AURKEZPENA

2.- ENTITATE ESKATZAILEA

2.1.- Elkartearen/Entitatearen bilakaera

2.2.- Elkarteko/Entitateko kideak

3.- GARATU BEHAR DEN PROGRAMA (V. Eranskinaren agindu teknikoei jarraiki)

3.1.- Programazioa

- Helburuak

- Edukiak

- Metodologia

- Ebaluazioa

3.2.- Giza-baliabideak

3.3.- Baliabide materialak

3.4.- Hedapen eta komunikazio plana

3.5.- Beste alderdi/gai batzuk

4.- AURREKONTUA

4.1.-Gastuen aurrekontua

4.2.-Diru-sarreraren aurrekontua

4.3.-Fitxa ekonomikoa (IV. Eranskina)

III. Eranskina/DATU OROKORRAK (Aurkibidea, lagungarri gisa)

Jardueraren izena: ESKUBALOIKO ESKOLAREN KUDEAKETA
2015eko urriaren 1etik abenduaren 31 arte eta 2016ko urtarrilaren 1etik maiatzaren 31 arte.

1.- JARDUERAREN AURKEZPENA

2.- ENTITATE ESKATZAILEA

2.1.- Elkartearen/Entitatearen bilakaera

2.2.- Elkarteko/Entitateko kideak

3.- GARATU BEHAR DEN PROGRAMA (V. Eranskinaren agindu teknikoei jarraiki)

3.1.- Programazioa

- Helburuak

- Edukiak

- Metodologia

- Ebaluazioa

3.2.- Giza-baliabideak

3.3.- Baliabide materialak

3.4.- Hedapen eta komunikazio plana

3.5.- Beste alderdi/gai batzuk

4.- AURREKONTUA

4.1.-Gastuen aurrekontua

4.2.-Diru-sarreraren aurrekontua

4.3.-Fitxa ekonomikoa (IV. Eranskina)

III. Eranskina/DATU OROKORRAK (Aurkibidea, lagungarri gisa)

**Jardueraren izena: PILOTAKO ESKOLAREN KUDEAKETA
2015eko urriaren 1etik abenduaren 31 arte eta 2016ko urtarrilaren 1etik maiatzaren 31 arte.**

1.- JARDUERAREN AURKEZPENA

2.- ENTITATE ESKATZAILEA

2.1.- Elkartearen/Entitatearen bilakaera

2.2.- Elkarteko/Entitateko kideak

3.- GARATU BEHAR DEN PROGRAMA (V. Eranskinaren agindu teknikoei jarraiki)

3.1.- Programazioa

- Helburuak

- Edukiak

- Metodologia

- Ebaluazioa

3.2.- Giza-baliabideak

3.3.- Baliabide materialak

3.4.- Hedapen eta komunikazio plana

3.5.- Beste alderdi/gai batzuk

4.- AURREKONTUA

4.1.-Gastuen aurrekontua

4.2.-Diru-sarreraren aurrekontua

4.3.-Fitxa ekonomikoa (IV. Eranskina)

IV. Eranskina/ FITXA EKONOMIKOA (Gastuen eta diru-sarrerren aurreikuspena).

GASTUAK	EUROAK	%
1.- Administratiboak/langileena izan ezik (tel., faxes, posta, bulegoko materiala...)		
2.- Aseguruak		
3.- Material erosketak (material mota zehaztu)		
4.- Publizitatea eta inprimatze gastuak		
5.- Trofeoak		
6.- Pertsonal-gastuak: entrenamenduak.		
7.- Egitasmoaren jarraipenerako gastuak (zehaztu)		
8.- Beste gastu batzuk (zehaztu)		
GASTUAK GUZTIRA		100

Oharrak:

- Pertsonal-gastuetan entrenamenduetarako jarri direnak onartuko dira soilik, eta astelehenetik ostiralera bitartekoak betiere.
- Soilik balioko dute ondorengo ereduari jarraiki aurkezten diren fakturak:

Faktura zenbakia, faktura jaulki duen entitatea, IFK/NAN, helbidea, lekua eta data.
Faktura ordaintzen duen entitatea, IFK/NAN, helbidea.

DIRU-SARRERAK	EUROAK	%
1.-Diru-laguntzak		
2.-Diru babesak		
3.-Bestelako diru-sarrerak		
DIRU-SARRERAK GUZTIRA		100

V. Eranskina/ AGINDU TEKNIKOAK

1.- Deialdi honek aipatutako kirol jarduerak, betiere, adingabeentzako kirol arloan indarrean dauden arauak jarraiki gauzatu behar dira, baita jarduera horiek dirauen epealdian, hala balegokio, onartuak izan litezkeen haiei ere.

2.- Barañaingo Udalak, eskura dituen baliabideekin bat etorritik (giza baliabideak, teknikoak eta ekonomikoak), laguntza emango dio kirol eskola bakoitzeko zuzendaritza teknikoa burutzen duen entitateari/Elkarteari, segidako alderdietarako: babesak eta aholkularitza, instalazioak doan uztea eta diru-laguntza ematea.

3.- Laguntza horiek, alde batetik, bete behar diren arauen mende egongo dira (instalazioetako arauak, kirol eskoletako eskubideen eta betebeharren ituna) eta, bestetik, aurkeztu beharreko memorien eta justifikatu-beharren mende.

4.- **Taldeentzako antolatzea.** Adina eta/edo maila teknikoko banatuko da modalitate bakoitzeko kirol eskola taldeak jarduteko. Hona hemen nola antolatuko diren taldeak: adinaren arabera, eta, parte-hartzaileek izena emateko finkatu diren gutxienerako eta gehienezko kopuruen arabera. Erreferentzia gisa –agindu teknikoaren bukaeran– kirol eskola bakoitzeko 2014/2015 ikasturterako aurreikusitako taldeen zerrenda sartu da.

5.- Egutegia.

5.1.- Kirol eskolako egutegia Barañaingo Udalak finkatu duen kirol egutegira egokituko da; oporraldietan, zubi egunetan eta jaiegunetan atsedena hartuta, arrazoi teknikoak direla-eta, kontrakoa baimendu ezean.

5.2.- Kirol eskolaren jardura urriaren 1etik maiatzaren 31ra burutuko da. Soilik eskolaren kudeaketaz arduratzen den entitateak –arrazoi teknikoengatik– eskatzen badu eta baimentzen bazaio, hasterik izanen dute aurretik edo beranduago bukatu. Halere, izena emateko epealdia hasi ondorengo izanen da jardueraren hasiera, kasu guztietan.

6.- Helburu orokorrak.

Kirol eskolen helburu orokorrak, zeintzuk aintzat hartu behar baitira, honako hauek dira:

- Ikaslearen hezkuntza integralaren prozesua ahalbidetzea kirol irakaskuntzaren bidez; baina kirol irakaskuntza horiek ulertuta betiere lankidetzarako bitarteko gisa prozesu horretan, eta ez, bere-berez, helburu gisa.
- Barañaingo neska-mutiko guztiei bermatzea, eskuragarri dauden baliabideen arabera, haiek aukeratzeko duten kirola ikasteko eta kirol horretan aritzeko aukera, ingurune osasuntsu eta seguruan garatu ditzaten beren oinarrizko trebetasunak, gaitasun fisikoak, sexu edo egoera sozialagatik bereizkeriarik gabe.
- Kirol ohiturak eta higienikoak eskuratzea, horiek ahalbidetu diezaioten bere garapen pertsonalaren ongizate fisiko, mentala eta soziala.

7.- Helburu zehatzak.

Landu behar diren helburu zehatzak honako hauek dira:

- Parte-hartzaile bakoitzaren banakotasuna errespetatzea, hainbat alderdiri dagokiona bereziki (adin biologikoa, gaitasun psikomotorrak, kirol errendimenduaren maila, eta kirol zaletasunak eta norberarenak), entrenamendu zemetan aurrera egiteko era logikoa erabilita.
- Kontzeptu teknikoak eta taktikoen dohatzea parte-hartzaileak, horien adinera eta garapen mailara egokitutako kontzeptuekin.
- Gorputz Hezkuntzari dagozkion oinarri metodologikoen arabera jardutea, xehetasun ludiko-hezigarriak erabilita.

8.- Parte-hartzaileak:

- Norentzat diren jarduera hauek guztiak: Barañainen erroldatuta daudenentzat; Lagunak Udal Zerbitzuko abonatuak diren parte-hartzaileentzat; erroldatu gabe edo abonatu gabe daudenentzat baldin eta 2013/2014 ikasturtetik jarduera horietan parte hartu eta 2015/2016 ikasturtean jarraitzen badute jarduera berberan. Behin izen-emate epealdia amaituta, erroldatugabeek eta abonatugabeek izena emateko duten aukera baloratuko da, betiere jardueren eta/edo taldeen kudeaketarako eta antolaketarako leudekeen beharren arabera. Dena den, ez dakar berekin legokiokeen diru-laguntzarik herrian erroldatu gabe dauden parte-hartzaileak sartzeak, ezta Lagunak Udal Zerbitzuko abonatuak ez diren parte-hartzaileak sartzeak ere.
- Behin izena eman eta eskolan lekua dutela baieztatu eta gero, ezarritako epeetan kuota ordaindu duten haiek parte-hartzaileentzat joko ditugu. Parte-hartzaile guztiek dituzte eskubide eta betebeharrak berberak eskolan, inolako bereizkeriarik gabe. Izena eman ez duten edo dagokien kuota ordaindu ez duten ikasleek ezin izanen dute inolaz ere eskoletara joan.

9.- Entitate/elkarte kudeatzailearen funtzioak:

Kirol eskola bakoitzeko kudeaketaz arduratzen den entitate/elkarteak zer egin beharko duen:

- Giza baliabide gaituak edukitzea (koordinatzailea eta irakasleak), kirol eskolako talde ezberdinak artatzeko.
- Irakasle guztien jarduna koordinatu eta eskolak dituen talde guztien jarraipena egin.
- Kirol eskolako talde bakoitzari jarduera eman ezarritako egutegiaren eta ordutegiaren arabera, eta dagozkion irizpide teknikoak, didaktikoak eta metodologikoak aintzat hartuta.
- Aldizkako bilerak egin udalaren kirol teknikariarekin, eta Udalaren Kirol Zerbitzuak eskatzen duen informazioa eman.
- Zaindu instalazioak, ekipamenduak eta materialak –ongi erabilia eta mantenduta-, talde bakoitzari horiek erabiltzeko ematen zaion denboraren barne.
- Kirol instalazioetan ikusten diren kalteen berri eman.
- Instalazioei eta udalaren kirol programei buruzko arauak betetzen direla zaintzea.
- Eskolako ikasleen gurasoei edo arduradunei arreta eman.
- Kirol eskolaren memoria (kirol arloa eta ekonomikoa) aurkeztu, Barañaingo Udalak ezarritako irizpideekin bat.
- Erantzukizun zibileko aseguruia kontratatu, kirol jardueraren ondorioz leudekeen arriskuak eta parte-hartzaileenak ere babesteko.

LAN TALDEEN ZERRENDA 2015/2016 DENBORALDIRAKO:

ESKOLA	ORDUTEGIA	ADINA	SEXUA	LEKUA	ORDUAK ASTEKO	IKASTURTEKO ORDUAK
ESKUBALLOIA	Astearte-ostegunetan 17:00-18:30	7-11 urte	Gizonezkoak	Lagunak Patinodromoa	3	88,5
ESKUBALLOIA	Astearte-ostegunetan 17:00-18:30	7-11 urte	Emakumezkoak	Lagunak Patinodromoa	3	88,5
ESKUBALLOIA	Astearte-ostegunetan 18:30-20:00 Ostiraletan 16:45-18:00	12-13 urte	Gizonezkoak	Lagunak Patinodromoa	4,25	123,5
ESKUBALLOIA	Astearte-ostegunetan 18:30-20:00 Ostiraletan 16:45-18:00	12-13 urte	Emakumezkoak	Lagunak Patinodromoa	4,25	123,5
ESKUBALLOIA	Astearte-ostegunetan 20:00-22:00 Ostiraletan 18:00-19:15	14-15 urte	Gizonezkoak	Lagunak Patinodromoa	5,25	153
ESKUBALLOIA	Astearte-ostegunetan 20:00-22:00 Ostiraletan 18:00-19:15	14-15 urte	Emakumezkoak	Lagunak Patinodromoa	5,25	153

SASKIBALOIA	Astelehenetan 17:20-18:30 Asteazkenetan 16:00-17:10	7, 8 eta 9 urte	Gizonezkoak Emakumezkoak	Kiroldegia	2	59
SASKIBALOIA	Astelehenetan 18:30-20:00 Asteazkenetan 16:00-17:10 Ostiraletan 17:00-18:15	10 urte	Emakumezkoak	Kiroldegia	3,75	108,5
SASKIBALOIA	Astelehenetan 18:30-20:00 Asteazkenetan 16:00-17:10 Ostiraletan 17:00-18:15	10 urte	Gizonezkoak	Kiroldegia	3,75	108,5
SASKIBALOIA	Astelehen-asteazkenetan 18:30-20:00 Ostiraletan 17:45-19:00	11 urte	Emakumezkoak	Eultza eta Kiroldegia	4,25	123,5
SASKIBALOIA	Astelehenetan 18:30-20:00 Asteazkenetan 16:00-17:10 Ostiraletan 17:45-19:00	11 urte	Gizonezkoak	Kiroldegia	3,75	108,5
SASKIBALOIA	Astelehenetan 18:00-19:45 Astearteetan 17:45-19:30 Ostegunetan 18:00-19:45	12 urte	Emakumezkoak	Lagunak, Kiroldegia	5,25	154
SASKIBALOIA	Astelehenetan 19:00-20:30 Asteazkenetan 17:45-19:30 Ostiraletan 18:45-20:00	12 urte	Gizonezkoak A eta B	Lagunak, Kiroldegia	4,5 taldeko	262 (bi taldeak)
SASKIBALOIA	Astelehenetan 16:30-18:15 Astearteetan 16:30-18:15 Ostegunetan 18:00-19:45 (A taldea) 19:00-20:30 (B taldea)	13 urte	Emakumezkoak A eta B	Lagunak, Kiroldegia eta Eultza	5,25 (A taldea) 5 (B taldea)	300,75 (bi taldeak)
SASKIBALOIA	Astelehen-astearteetan 19:45-21:15 Ostegunetan 20:00-21:45	14-15 urte	Emakumezkoak A eta B	Lagunak, Kiroldegia	4,75 taldeko	278,5 (bi taldeak)
SASKIBALOIA	Astearteetan 18:30-20:00 Ostegunetan 16:30-18:00 Ostiraletan 16:30-18:30	13-14-15 urte	Gizonezkoak	Lagunak, Kiroldegia eta Eultza	5	144,5
PILOTA	Astelehen-asteazken- ostegunetan 17:00-18:00	6-9 urte	Gizonezkoak Emakumezkoak	Retegi pilotalekua	3	88
PILOTA	Astelehen-asteazken- ostegunetan 18:00-19:00	10-13 urte	Gizonezkoak Emakumezkoak	Retegi pilotalekua	3	88
PILOTA	Astelehen-asteazken- ostegunetan 19:00-20:00	14-16 urte	Gizonezkoak Emakumezkoak	Retegi pilotalekua	3	88

- Erreferentzia gisa jarri dira taula honetan jasotako taldeak eta ordutegiak (iazko ikasturtearen antolaketan oinarrituta daude). Beraz, ikasturte honetako ordutegiak behin egokituta eta izen-emateak burutu eta gero, agertzen diren datuak alda daitezke eskaeren inguruabarrek beharturik. Udalak eskubidea izango du erabakitzeo kirol eskola bakoitzeko talde ezberdinak martxan jarri ala ez, eskura dituen matrikulen eta/edo eskaeren kopuruaren arabera. Era berean, talde ezberdinak antolatzeko aukera ere aztertu lezake Udalak, taulan agertzen den taldeen zerrendan jaso gabe leudekeenak hain zuzen.